

IRIZPEN 22/03

Maite Alonso, presidentea
Begoña Cabria
Aitor Idigoras
Lierni Lizaso
Mari Tere Ojanguren
Idoia Pujana
Lourdes Villardón
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2022ko martxoaren 24ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Batxilergoko Sari Bereziak arautzen dituen eta horiek emateko baldintzak ezartzen dituen 35/2011 Dekretua bigarren aldiz aldatzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

35/2011 Dekretua, Batxilergoko Sari Bereziak Euskadin arautu zuen. Dekretua indarrean jarri zenetik, ordura arte urteroko deialdietan araututakoaren aldi baterako araudia ezarri zen.

Otsailaren 19ko, 166/2013 Dekretua, 35/2011 Dekretuaren zenbait artikulua aldatu zituen; horien artean, 8.1 artikulua, sarien edukiari buruzkoa, zuzkidura ekonomikoa ezabatuz eta Hezkuntza Sailak antolatzen duen bidaia-programan parte hartzeko aukera ezarritz, saria lortu duten urtearen ondorengo udan hizkuntza-ikastaroak atzerrian egiteko, hau da, sarituek graduko edo goi-mailako ikasketetako lehen maila amaitu dutenean.

II. EDUKIA

Dekretu-proiektuak artikulua bakarria eta azken xedapen bat ditu.

Artikulu bakarrak idazketa berria ematen dio 8. artikulua lehenengo lerrokadari, eta ezartzen du, egiaztagiriaz gain, saritutako ikasleei 1.200 euroko diru-laguntza emango zaiela gailu digital bat edo bi erosteko.

Gainera, ezartzen da zenbateko hori urteko deialdiaren aginduan eguneratu ahal izango dela, urte arteko kontsumo-prezioen indizearen mugarekin, eta arlo horretan eskumena duen zuzendaritzako titularrak kudeatuko duela.

Azken xedapenak dekretua indarrean jartzea ezartzen du.

III. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Kontseiluak, bai 35/2011 Dekretuaz (2010/11 Irizpena) eta haren aldaketaz irizpena eman du, 166/2013 Dekretuaren (2012/16 Irizpena). Dekretu horretan, Sailak atzerrian hizkuntza-ikastaroak egiteko antolatzen duen bidaiia-programan parte hartzeko aukera ezartzen zen.

Kontseiluak, 2012/16 Irizpenean, bidezkoztat jo zuen gai hori; hala ere, gaineratzen zuen ezen, "hezkuntzaren bikaintasuna bultzatu nahi bada, ikasleen ahalegina saritzeko bideak bilatu beharko dira".

Dekretu-proiektu honen zioen azalpenean azaltzen denez, egiaztatu da hizkuntza-ikastaroak egiteko datak ez direla egokiak; izan ere, ikasle askok EAETik kanpo hasten dute goi-mailako irakaskuntza, bai estatuan, bai atzerrian, eta, beraz, ezin dute sariaz gozatu. Hori dela eta, inplikaturako sektore akademikoen hainbat iradokizun kontuan hartuta, egokiagotzat jo da hezkuntza-prozesu digitalerako 1.200 euroko diru-laguntza batekin ordezkatzeari, beren hezkuntza-prozesuan tresna gisa balioko dien gailu digital bat edo bi eskuratzeko.

Kontseiluak egokitzat jo du proposatzen den aldaketa, ikasleek saria jaso ahal izan dezaten, baina ez du uste 1.200 euroko diru-laguntza gailu digitalak erostera soilik mugatzeko arrazoirik dagoenik, eta uste du bere ikasketekin lotutako edozein kontzeptutan erabili ahal izan beharko lukeela, dela gailu digitaletan, dela egoitzako beste edozein gastutan, dela material didaktiko ez-digitalean, unibertsitateko matrikulan eta abarretan.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2022ko martxoaren 24an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURUA